Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2020ko martxoaren 3a, asteartea — 42 — Martes, a 3 de marzo de 2020

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ASTIGARRAGAKO UDALA

*Iragarkia*

Tokiko gobernu batzarrak 2020ko otsailaren 25ean egindako bilera, beste batzuen artean, akordio hauek hartu zituen:

*Lehena.* Udaltzainen agente lehenaren lanpostua betetzeko lehiaketa-oposizio libreko oinarrietan aldaketa hauek egitea:

1. Oposaketa fasean ariketa berri bat sartzea, hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko, hain zuzen; eta oinarrien 9.1 atalari idazkera hau ematea:

«1. Oposaketa fasea.

Oposaketan honako ariketak izango dira:

— Lehen ariketa: Derrigorrezkoa eta baztertzailea.

Idatziz erantzun beharko den test galdetegia, I. eranskineko (a eta b atalak) gai orokorrei eta lanpostuaren eginkizunei buruzkoa.

Gehienez 20 punturekin baloratuko da ariketa hau, beharrezkoa izanik gutxienez 10 puntu lortzea gainditzeko.

— Bigarren ariketa: Ariketa praktikoak ebazteko proba, nahitaezkoa eta baztertzailea.

Bi ariketa teoriko edota teoriko/praktiko (edo gehiago) ebatzi beharko dira idatziz, lanpostuaren eginkizunei buruzkoak (I. eranskineko b. atala – berariazko gai zerrenda).

Ariketa horietako bat, gutxienez, epaimahaiaren aurrean aurkeztu eta defendatu beharko da, zehazten den egunean.

Ariketa hau gehienez 30 punturekin baloratuko da eta gainditzeko 15 puntu eskuratu beharko dira. Idatzizko proban gehienez 20 puntu lortuko dira eta ahozkoan 10.

— Hirugarren ariketa: Euskara. Nahitaezkoa eta baztertzailea.

3. (C1) maila egiaztatu beharko da, Epaimahaiak zehazten duen eran.

Proba hori Gai edo Ez Gai kalifikatuko da, eta gaitasun deklarazioa behar izango da proba gainditzeko.

IVAPek emandako, 3. (C1) maila edo baliokidea, azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan (azaroaren 15eko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*) eta apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan (apirilaren 16ko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*) jasotzen diren euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien jabe direla justifikatzen duten izangaiak salbuetsita geratuko dira proba egitetik.

— Laugarren ariketa: Gaitasun fisikoen proba, borondatezkoa eta baztertzailea.

Hurrengo ariketak edukiko ditu;

a) Press Bankua.

b) Course Navette.

Gaitasun fisikoko proba honetako ariketak II. eranskinean adierazten den moduan egin eta kontabilizatuko dira.

## AYUNTAMIENTO DE ASTIGARRAGA

*Anuncio*

La junta de gobierno local en sesión celebrada el 25 de febrero de 2020, adoptó –entre otros– los siguientes acuerdos:

*Primero.* Realizar las siguientes modificaciones en las bases del concurso oposición libre para la provisión de un puesto de agente primero de la policia local.

1. Introducir un nuevo ejercicio en la fase de oposición para acreditar el perfil lingüístico y dar la siguiente redacción al apartado 9.1 de las bases:

«1. Fase de Oposición.

La fase de oposición constará de los siguientes ejercicios:

— Primer ejercicio: De carácter obligatorio y eliminatorio.

Formulario tipo test a realizar por escrito sobre los temas generales y las funciones del puesto que figuran en el anexo I (apartados a y b).

Este ejercicio se valorará sobre un máximo de 20 puntos, siendo necesario obtener un mínimo de 10 puntos para superarlo.

— Segundo ejercicio: Prueba de resolución de supuestos prácticos, de carácter obligatorio y eliminatorio.

Consistirá en la resolución por escrito de dos o más supuestos prácticos y/o teórico-prácticos, sobre las funciones del puesto. (Apartado b –temas específicos– del anexo I).

Al menos uno de los ejercicios habrá de ser expuesto y defendido oralmente ante el tribunal, en el día que se señale.

Este ejercicio se valorará sobre un máximo de 30 puntos, siendo necesario obtener un mínimo de 15 para superarlo. En la prueba escrita podrá obtenerse un máximo de 20, y en la oral de 10.

— Tercera prueba: Euskera. Obligatoria y eliminatoria.

Consistirá en la acreditación del perfil lingüístico 3 (C1), en la forma que determine el Tribunal.

Esta prueba se calificará como Apto/a o No Apto/a, requiriéndose la declaración de Aptitud para superar la misma.

Quedarán exentas de la realización de esta prueba aquellas aspirantes que justifiquen estar en posesión del certificado de acreditación del Perfil Lingüístico 3 (C1), expedido por el IVAP o equivalente según se recoge en el Decreto 297/2010 de 9 de noviembre (*Boletín Oficial del País Vasco* de 15 de noviembre) y el Decreto 47/2012 de 3 de abril (*Boletín Oficial del País Vasco* de 16 de abril).

— Cuarto ejercicio: Prueba de aptitud física, de carácter voluntario y eliminatorio.

Constará de los siguientes ejercicios;

a) Press de Banca.

b) Course Navette.

Los ejercicios de esta prueba de aptitud física, se ejecutarán y contabilizarán en la forma indicada en el anexo II.

EK\CV GAO-I-2020-01159

Ariketa bakoitza 0 eta 10 puntu artean baloratuko da ezarritako baremoen arabera.

Gaitasun fisikoko proba puntuatzeko ariketa bakoitzean gutxienez 5 puntu lortu beharko dira.

Adinari dagokionez, proba honetako ariketak egiteko orduan kontuan hartuko da eskaeren aurkezpenaren azken egunean izangaiek duten adina.

Ariketa fisikoak, hauetan parte hartzen dutenen ardurapean bakarrik egingo dira eta kirol ekipamendu egokiarekin aurkeztu beharko dira.

— Bosgarren ariketa; Proba psikoteknikoak, nahitaezkoak eta baztertzaileak.

Hurrengo proba psikoteknikoak egingo dira hautagaien gaitasun eta jarrerak zehazteko eta bete behar den lanpostu-profilaren egokitasun maila ebaluatzeko:

— Nortasun probak: proba hauen bidez ebaluatuko dira nortasunaren ezaugarri orokorrak, faktore psikopatologikoak, lidergo trebetasunak, Kudeaketa, antolakuntza, plangintza, erabakiak hartzeko, gainbegiratzeko gaitasunak… Gehienez 30 punturekin baloratuko dira eta gainditzeko gutxienez 15 puntu lortu beharko dira.

— Gaitasunen probak: proba hauen bidez ebaluatuko dira adimen orokorraren, pertzepzioaren eta arreta-gaitasunaren, hitzezko arrazoitzeko ahalmenaren eta arrazoibide abstraktuaren mailak. Proba horien helburua da lanpostuaren eginkizun orokorretarako eta lan berezietarako hautagaien egokitasuna ebaluatzea. Gehienez 20 punturekin baloratuko da ariketa hau, beharrezkoa izanik gutxienez 10 puntu lortzea proba gainditzeko.

— Seigarren ariketa; Elkarrizketa pertsonala, kurrikularra, nahitaezkoa eta ez-baztertzailea.

Elkarrizketa pertsonala egingo da behar den profil profesionalerako hautagaiaren egokitasun pertsonala aztertzeko. Gai/Ez gai moduan kalifikatuko da.

Epaimahaiak ariketak egiteko ordena aldatu ahalko du, hautagaiei jakinaraziz ariketaren data eta orduaren berri ematean.»

— Oinarrien 7.1 atalean (epaimahaiaren osaera), kide berri bat sartzea, hain zuzen: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) partaide bat hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko egingo diren probetarako.

*Bigarrena.* Oinarrietan egin diren aldaketak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Udalaren webgunean (www.astigarraga.eus), eta horren laburpen bat *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratzea.

*Hirugarrena.* Eskabideak aurkezteko 20 egun balioduneko beste epe bat irekitzea, deialdia *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Astigarraga, 2020ko otsailaren 25a.—Xabier Urdangarin Lasa, alkatea. (1159)

Cada uno de los ejercicios de valorará de 0 a 10 puntos según los baremos establecidos.

Para puntuar la prueba de aptitud física será necesario obtener un mínimo de 5 puntos en cada ejercicio.

La edad a efectos de la realización de los ejercicios de la presente prueba se considerará la que las personas tengan el último día de presentación de solicitudes.

Los ejercicios físicos se realizarán bajo la exclusiva responsabilidad de las personas participantes, y deberán presentarse con el equipo deportivo adecuado.

— Quinto ejercicio; Pruebas psicotécnicas de carácter obligatorio y eliminatorio.

Se realizarán las siguientes pruebas psicotécnicas dirigidas a determinar las aptitudes y actitudes de las personas aspirantes y a evaluar su grado de adecuación al perfil del puesto a cubrir:

— Pruebas de personalidad: Pruebas dirigidas a evaluar los rasgos de personalidad general, factores psicopatológicos, dotes de mando, capacidad de dirección, organización, planificación, toma de decisiones, supervisión, etc. Se valorará sobre un máximo de 30 puntos, siendo necesario obtener un mínimo de 15 puntos para superar la prueba.

— Pruebas de aptitud: Pruebas dirigidas a la evaluación del nivel de inteligencia general, capacidad de percepción y atención, capacidad de razonamiento verbal, razonamiento abstracto, encaminadas a evaluar la adecuación de las personas aspirantes a las funciones generales y a las tareas específicas del puesto. Se valorará sobre un máximo de 20 puntos siendo necesario obtener un mínimo de 10 puntos para superar la prueba.

— Sexto ejercicio; Entrevista personal de carácter curricular, obligatorio y no eliminatorio.

Se realizará una entrevista personal dirigida al estudio de la adecuación personal de las personas candidatas al perfil profesional requerido. Se calificará con Apto/ No apto.

El tribunal podrá modificar el orden de realización de los ejercicios, comunicándoselo a las candidatas en el momento de indicarles la fecha y la hora del ejercicio.»

— Inclusión en el apartado 7.1 (composición del Tribunal) de un nuevo miembro, en conceto, un representante del Instituto Vasco de Administración Pública (IVAP) para las pruebas de acreditación del perfil lingüístico.

*Segundo.* Publicar en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en la página web del Ayuntamiento (www.astigarraga.eus) las modificaciones introducidas en las bases, así como un extracto de la misma en el *Boletín Oficial del Estado*.

*Tercero.* Apertura de un plazo de presentación de solicitudes de 20 días hábiles contados a partir del día siguiente al de la publicación de la convocatoria en el «*Boletín Oficial del Estado*».

Astigarraga, a 25 de febrero de 2020.—El alcalde, Xabier Urdangarin Lasa. (1159)

EK\CV GAO-I-2020-01159